


Ezpalak

JON TORNER

'Euzkadiko Gudontzidia' Interneten

1936KO ESPAINIAKO GERRA ZIBILEAN Kantauri itsasoan borrokatu zuen Euzkadi gudarosteari buruzko informazioa bildu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Gudontzidia.eu webgunean. Juan Pardoren *Euzkadiko gudontzidia*.



La Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi (1936-1939) liburu-ko datuetatik abiatuta osatu dute gunea. Argazkiak, agiriak eta bideoak aurki daitezke bertan, datu historikoekin batera.

Guraso.com ataria aurkeztu dute

TXATXILIPURDI aisialdi elkarteak eta Goiena Komunikazio Zerbitzuak sortu dute Guraso.com webgunea, Arrasateko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Gurasoen premiak asetu eta zalantzak argitzea du xede atariak. Teknologia berriak, osasuna, hezkuntza formala eta ez formala, jolasak, sexualitatea eta familientzako planak jorratuko ditu, besteak beste.

IKTB.tv telebista sortu du Nafarroako Ikastolen Elkarteak

HAUR ETA GAZTEEI zuzendurik dago Nafarroako Ikastolen Elkarteak (NIE) sortu duen Internet bidezko IKTb telebista (www.iktb.tv). Nafarroa Oinez eta Korrikako bideoak, elkarrizketak eta musika taldeen bideoak ikus daitezke, besteak beste. Erabiltzaileek euren bideoak igotzeko aukera dute.

Joseba Leizeagak, 2001ean New Yorkeko Dorre Bikien aurkako eraso abiapuntu gisa hartuta, munduko hainbat herrialdetan gertatzen ari denaz hausnartu du *Irailak 11 hori* dokumentalean. Pasa den astean aurkeztu zuen, Errenterriko Reina Aretoan. 57 minutuko dokumentala Interneten jarri du ikusgai Leizeagak: www.euskalnet.net/leize/irudigilea/bideoak/i11h.html.

Mikel Valverdek idatzi eta marraztu dituen *Rita tenislari* eta *Rita Poloan* haurrentzako ipuinak euskaraz argitaratu ditu Elkarrek. Juan Martín Elexpuruk itzuli ditu gaztelaniatik euskarara.

Bernardo Atxagaren *Zazpi etxe Frantziari* eleberria (Pamiela) kalean da jada. XX. mendeko Kongon kokatua, umore beltza eta abentura uztartu ditu Atxagak liburu berrian.

● **Oihan Vega Belceblues taldeko kidea elkarrizketatu du Aldaketa Hamasei aldizkariak:** «Kontraturatu gara Euskal Herrian arazo bat dagoela. Azken hogeita hamar urteetan geratuta egon da musika, ez da urratsik eman, eta ikusi dugu musika mota bakarra entzuten eta bultzatzen dela hemen, rock indartsua (...) Ez dugu ezer rockaren kontra, baina zerbait gertatzen da herri osoan musika estilo bat baino jorratzen ez denean. Hutsune bat ikusten dugu. Arazo kulturala, soziala, politikoa edo dena delakoa. Horregatik disko honetan [*Infer* izeneko diskoan] salatu egin nahi izan dugu egoera hori edo kezka hori plazaratu nolabait, musikaren munduak gaur egun dituen aukera guztiekin, Internet bitartez zabaltzen diren estilo guztiekin, zergatik jorratzen den estilo hori gurean. Jazza dago, musika latino, country...».





Alfonso Sastre
EMMANUEL KANTEN
AZKEN EGUNAK



Aristides Vargas
HARITZAREN
AZALERA ZEHATZA

Yorick Liburudendan edo www.libreriayorick.com
eskura dezakezu

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao
Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com

Abarrak

ESTITXU EIZAGIRRE

Museoak bertsoan hitz egiten du

Baionako Euskal Museoa. Eguna: Martxoaren 1a.
Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus.

Bestela ez gabela joaten, eta bertso-hotsari jarraiki sartu gara Baionako Euskal Museoa. Bestela bertso-rik entzungo ez luketenak, museoaren ikusmirak ekarri ditu bertsolarien aurrera. Bi publikoak batu ditu museoaren animazio ekintza honek. Xan Iriarte Museoaren komunikazio arduraduna asebeste du horrek: "Bertsolarien eta museoaren publikoak gurutzea gauza ederra da. Gainera, beti ari gara turistak nola erakarriko, baina Euskal Museoa gurea da, eta egun bertako jende asko ez da etortzen".

Euskaraz eta frantsesez gidatu gaituzte gelaz gela, bertsolariei ikusgai dauden gaiak jarritz. Jokoa ematen dute arrotz zaizkigun objektuek, galdu ditugun lanbideek, oraindik indarrean diren tradizioek... eta bertsolariek jokaldi ederrak egin dituzte, iraganean gertatu gabe, gaurkotasunezko gaiak atereaz. Publiko bertsozalea gustura geratzeko modukoa izan da.

Museoetako azalpen gehiago lasai emateko gomendioa luzatzen diegu hemendik. Xehetasun eta datu gehiago beldurrik gabe emateko aurkezpenetan.

Museoak, etxeak berak, hunkitu gaitu. Patio biribilaren erditik bota dute agurra bertsolariek, eta publikoak lehen pisuko barandillatik entzun ditu, kupulapeko argitan. Sonorizazio bete betean. Arrantzaren solairuan, katoi estu bat bada, eta bertan, bankuan eserita egonaldia egin du amona batek... Bertsotrama berezi bat egiteko lekua da museo hau, bertsolariak eszenaz eszena mugitu eta entzuleek nahi duten lekutik istorioa jarraitzekoa...

Horrelako gehiago egin behar dituztela ondorioztatu du Iriartek. Hurrengo zita ekainaren 7an da, arratsaldeko 16:00etan. Bigarrenez museora sartzeko modukoa. ■

JAKOBA ERREKONDO



Lanku
tel. 943 260 795
www.lanku.com



Tolosan bigarren saioa izango da. Euskararenean egitasmoaren barruko ikuskizuna da.

Bertsolariak: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Jon Maia.
Musikariak: Bixente Martinez, Haritz Oleaga, Asier Ituarte, Jon Piris eta Julen Izarra.
Gai-jartzailea: Unai Elizasu.

Inprobisazioaren bi atal garrantzitsu elkarrekin arituko dira, elkarri aberasten, elkarlanean.

Martxoak 28 larunbata 22:00etan **Bertso Jazza Leidorren**